

# Bizitzaren polifonia

Charles Mingus (Nogales, Arizona, AEB 1922 - Cuernavaca, Mexiko, 1979) jazz musikariaren jaiotzaren ehungarren urteurrena bete zen iaz. Jazzaren historiako konpositore, instrumentista eta bandako lider handienetakoa da. Duke Ellington, Thelonious Monk, Charlie Parker, John Coltrane edo Miles Davis maisuen parekoa da haren itzala. Ezbairik gabe, talentuak gainez egiten zion jenio bat.

 JULEN AZPITARTE

**K**ontrabaxu-jotzaile apartaren ehungarren urteurrena gogorarazteko asmoz, Libros del Kultrum argitaletxeak Mingusen autobiografia ezagunaren gaztelera izulpena berrargitaratu du: *Beneath the Underdog: His World as Composed by Mingus* (Txakur bat baino gutxiago: konposatu nuen mundua). Berrargitarapenari hiru testu gehitu dizkionte, gaztelera aurreko edizioetan jaso gabekoak.

“Suminkorra”, “zorrotza”, “traketsa”, “zakarra”... Mingus musikari basatia zen, eta haren nortasuna antzeko adjektiboen inguruan hezurramitu zen. Adibidez, Filadelfian eman zuen kontzertuetako batean, bat-batean bukatu zuen emanaldia: pianoaren estalkia itxi eta pianistaria hatzak hautsi zizkion, eta gero, Jimmy Knepper tronboi jotzaileari ahoan zaplaztekoa eman zion. Ondorioz, *Jazzaren Gizon Amorratua* goitizena jarri zioten. Izaera biolento hori gorabehera, amultsu era agertzen zen. Bere biografian jasota utzi zuenez, Mingusen baitan hainbat Mingus bizi ziren.

Horiek horrela, bere barrunbeetako hamaika ahotsez eta aldarrez osatutako bizitza polifonikoa bizi izan zuen. Halaber, bere musikan bizipen korapilatsuetako osagaiak txertatu zituen, hala nola:

gospela eta bluesa, New Orleans hiriko jazz, abangoardiako jazz edota musika klasikoa. Bere eragin nabarmenetako bat Duke Ellington musikaria izan zen; behin esan zuen Ellington eta Eliza zirela bere influentzia nagusiak. Haren soinua eta armoniak hartu zituen, eta, besteak beste, disonantziak, denbora aldaketa bortitzak eta azelerazioak erantsi zizkion.

Mingusen produkzioa latza eta emanakorra da. Alabaina, artistaren aburuz, bere diskografiako lanik onena *Tijuana Moods* (RCA, 1962) da. 50eko hamarkada amaieran, AEBen eta Mexikoren arteko mugako hirira iritsi zen, maitale batek eragindako desengainua tarteko. Hala, Tijuanan “sentitutakoa eta ikusitakoa” bildu zuen disko horretan: gau giroa, tequila, takoak, txile minak, mariatxiak eta apustuak. Kriskitin hotsak eta free jazz uztartzen dituen obra da. Neurrigabeke-ria, zentzurik onenean.

## ETENGABEKO HITZ-JARIOA

Mingusek idatzitako biografian, baina, musikak kasik ez du presentziarik. Jazzak liburua moldatzen du, baina edukari ez dio inolako ekarpenik egiten. Kontrabaxistaren etorria etengabea eta neurrigabea da, eta jazzaren erritmo frenetikoaren energiarekin kateatzen diren elkarriketen bidez egituratzen da libu-

rua. Bi hamarkada bere bizitza izkiriatzen eman ostean, 1971. urtean plazaratu zuen autobiografia, baina ordurako oso gaixo zegoen, alboko esklerosi amiotrofikoak jota; zortzi urte beranduago hil zen. Ahalegin kolosal horren ondorioz, hirugarren pertsonan idatzitako 1.500 orrialde bete zituen, eta lan mardul hori 384 orrialdera ekarri zuen editore batek. Edizio lan hori dela eta, musikariak ezer gutxi jakingo du irakurleak, baina ezagutuko du haren ego oinazetsua. Etxolak, jauregiak, psikiatrikoak eta jazz-zuloak bisitatu zituen musikari erdi beltz baten nondik norakoak dira liburuaren muina, non emakumeak eta belztasuna diren gai nagusiak. Horiek horrela, biografia fikzionatu baten itxura hartzen du kontakizunak, eta zaila da jakitea zer den egia eta zer gezurra, zer fantasia eta asmazio sexuala, zer egiazko gertaera eta haurtzaroko anekdota zorigaiztokoa. Mingusen emazte Sue Grahamek aitortu zuen liburuan jasotako kontu asko musikariak asmatu zituela. Halere, gertaerok dibertigarriak eta hunkigarriak dira, eta lirismoz eta gordintasunez kontatuta daude, isurritako hitzontzikeria geldiezina tarteko. Boladan zegoen *beat* literaturatik gertu.

Kontakizuna kontrabaxuaren haurtzaroan eta nerabezaroan abiatzen da, Los Angeles hiriko Watts aldirian. Aita,

militar ohia, abila zen gerrikoarekin. Amaordea, halaber, fundamentalista eta errepresioegilea zen, Bibliako aipamenak uneoro txistukatzen zituen. Mingusek bereak eta bi zuzendu zizkion liburuan. Musika klasikoa ikasten saiatu zen gazetetan, baina klasikoa zurientzako esparrua zenez, jazzera jo behar izan zuen. "Beltza zara. Nahiz eta ona izan, inoiz ez duzu ezer lortuko musika klasikoan. Jo nahi baduzu, instrumentu beltz bat jo beharko duzu. Ezin duzu txeloa jo; beraz, kontrabaxua jotzen ikasi beharko duzu, Charlie!". Ondotik, proxeneta, urdanga, gamelu eta gaizkilez jositako giroetan nabarmentzen hasi zen. Azkenik, New York hirira iritsi zen, eta bere garairik onenak han bizi izan zituen. Lionel Hampton, Billy Holiday, Fats Navarro eta Charlie Parker jazz musikari garrantzitsuen ondoan ibili zen. Depresioan hondoratuta Bellevue psikiatrikoa bisitatu zuenekoan ere kontaktzen du.

Emakumeak dira kontakizunaren ardatz nagusia. 40ko hamarkadan sexu bidaldi zorabiagarria abiatu zuen Mingusek. Bere bizitzan 31 maitasun-afera izan zituela onartu zuen, baita hogeit hamar emakume ingururekin oheratu zela saio baka-

## **Musika klasikoa ikasten saiatu zen gazetetan, baina klasikoa zurientzako esparrua zenez, jazzera jo behar izan zuen**

rrean ere. "Edozein zuri kaiku eta zikin baino gizonagoa naiz. 23 emakumerekin egin nuen larrutan gau batean, buruzagiaren emakumea tartean (...) Hiltzea desiatzen nuelako egin nuen eta horrek hilko ninduela espero nuen. Baina Mexikotik itzultzerakoan, asetuta sentitzen nintzen; beraz, utzi nion". Jakina, hori guztia baieztatuko duenik ez da. Musikariaren poligamiaren aldeko aldarria azpimarragarria da: bost emazte izan zituen, eta horietako bi sexu-langile bihurtu zituen. Denboraldi batez proxeneta izaten amaitu zuen.

Kontaketa zeharkatzen duen bigarren gai nagusia belztasuna da, liburua

sasoiko giro sozial eta ekonomikoaren kronikatzen ere har baitaiteke. Mingusek beltza izateagatik lotsa sentitu zuen txikitatik. Areago, bere azala ez zen oso iluna, eta hortaz, bere belztasuna ere ez zen nahikoa beltza gainerako beltzentzat. Ondorioz, beti zebilen istiluetan bera baino beltzagoen irainak tarteko. Mingusen ama jatorri ingeles eta txinatarreko gizon baten eta Hego Amerikako emakume baten alaba zen, eta aita baserriko gizon langile beltz baten eta emakume suediar baten semea. "Charles Mingus naiz. Gizon erdi beltza, erdi horia, ezta horia ere, ez beltza izateari uzteko bezain zuria ere, ezta zuri deitzeko bezain argia ere. Nik beltzat jotzen dut neure burua. Charles Mingus naiz, nire ustez ez dut kolorerik. Charles Mingus naiz, jazz musikari ospetsua, baina ez Ameriketako Estatu Batuetan bizimodua ateratzeko bezain ospetsua, nire etxean". Autobiografiaren jatorrizko izenburuak, hain zuzen, bere nortasuna erabat baldintzatu zuen izaera mestizo horri erreparatzen zion: *Memoirs of a Half Yellow Schitt Covered Nigger* (Kaka erdi horiz estalitako beltz baten oroitzapenak). Baina editoreak titulua zuritu zuen. ●

